

ZARAUTZEN ELKARTUKO GARA AURTEN

Ate joka dator trikitilari eta trikitizaleen zitarik garrantzitsuenetakoa. Aurten, ekainaren 15ean, igandean, Zarautzen ospatuko dugu Euskal Herriko Trikitixa Eguna.

Gauza jakina da trikitixa sustatu eta hedatzea dela Trikitixa Elkartearen xedetakoa bat eta horren harira antolatu du bi urtean behin egiten den trikitixa festa. Deialdi zabala egin dute antolatzailerak eta bertan parte hartzera deitu dituzte trikitiarekin nolabaiteko lotura duten guztiak: trikitilariak, trikitizaleak, trikitixa eskoletako ikasle eta irakasleak...

Elkar ezagutzeko eta trikitilariak jendaurrean jotzeko aukera paregabea eskaintzen du topaketak eta horretarako bidea ematen du osatu duten egitarauak. Horrela, goizeko 11:00etan Zarauzko Musika Plazan jarri dute elkartzeko hitzordua. Bertan banatuko da eguna indarrez hasteko lagungarri gertatuko den hamaiketakoa. Elkar agurtu eta sabelak berdindu ondoren ekingo diote trikitilariak Zarauzko kaleak trikiti doinuaz alaitzeari eta aukera ezin hobea izango dute bertaraten diren zaleek ehunka trikitilariren piezak entzunaz gozatzeko.



euskal herriko trikitixa eguna 2014
ZARAUTZEN, EKAINAREN 15ean

11:00etan Musika plazan elkartu eta hamaiketakoa banatuko da
14:00etan **Bazkaria Munoan** (eguraldi txarrarekin Zinema Frontoian)
Tiketa aurrez hartu beharko da: Haurrak 15€ / Helduak 18€
trikitixa@trikitixa.net / 943.83.28.28
Bazkarirako izena emateko azken eguna: Ekainak 5
17:30etan **Erromeria DANTZADI** taldearekin

Antofitzaileak
Laguntzaileak

Eguraldia lagun, 14:00etan izango da bazkaria Munoa Plazan baina euria eginez gero, Zinema frontoian egingo da. Aldez aurretik hartu beharko da bazkaritarako txartela trikitixa@trikitixa.net helbidera idatzita edo **943 83 28 28** telefono zenbakira deituta. 15€ ordainduko dituzte haurrek eta 18€ helduek. Gogoratu, **ekainaren 5a** izango dela bazkarirako izena emateko azkeneko eguna.

Eguna borobiltzeko, 17:30etatik aurrera erromeria izango dugu DANTZADI taldearen eskutik.

45 GAZTETXOK PARTE HARTUKO DUTE EUSKAL HERRIKO I. TRIKITIXA UDALEKUETAN

Erdizka trikitixa elkarteak antolatuta, gaztetxoak Abaigarko aterpetxean elkartuko dira ekainaren 24tik 28ra. Deialdia Euskal Herri osora zabalduta duen lehenengo aldia baldin bada ere, lantaldeak badu eskarmentua trikitixa udalekuak antolatzen. Aritz Alustizak adierazi digunez, "Trikitixa udalekuak antolatzen ditugun hirugarren urtea da. Bergara mailako udalekuak egin genituen lehenengo urtean. Iaz, hiru irakasle elkartu eta hiru eskoletako ikasleei zabalduta genien eskaintza eta aurten deialdia Euskal Herri osora zabaltzea erabaki dugu".

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak elkartuko dira Abaigarren. Apirilaren 25ean itxi zuten izena emateko epea eta "45 lagun apuntatu zaizkigu. Herri askotako gaztetxoak elkartuko dira. Denak Bizkaia eta Gipuzkoakoak". Neska/mutil proportzioaz galdetuta: "Gehixeago dira neskek baina mutil asko etorriko dira".



Udalekuetan parte hartu ahal izateko ez dute gutxienerako trikiti edo pandero mailarik eskatzen. Gaztetxoek soinuarekiko nahiz panderoarekiko duten harremana sendotzea eta beste herri batzuetako trikitilariarekin harremanak sortzea dira helburuetako bi.

Egitarau zabala prestatu dute: "Musikarekin lotutako ekintzak izango dira gehienak. Trikitixa, perkusio, dantza eta kantu saioak egingo ditugu, txangoak, erromeriak... Trikitilari profesionalak ere etorriko zaizkigu bisitan".

Azken egunean, gurasoei eta inguruko herritarrei zuzenduriko emanaldia eskainiko dute gaztetxoek.

GETARIAKO XV. TRIKITILARI TXAPELKETA

Maiatzaren 31n ospatuko da Getariako XV. Trikitilari Gazteen Txapelketa. 18 urtez azpiko gazteek parte hartuko dute bertan eta hiru pieza jo beharko ditu bikote bakoitzak. Nahitaez jo beharko dituzte trikiti bat eta pot-pourria eta bikoteen esku dago hirugarren pieza fandangoa, porrusalda edo arinarina izango ote den erabakitzea.

Txapelketa **Katrapona enparantzan** jokatu da arratsaldeko **17:30ean**.

BADATOR BIZKAIKO TRIKITIXA EGUNA!

Bizkaiko Trikitixa Elkarteak **maiatzaren 31n** ospatuko du Bizkaiko Trikitixa Eguna. Urteroko zita garrantzitsua bilakatu da eta aurreko urteetan Getxo, Durangolurreta, Loiu eta Plentzian izan ostean, Gorliz izango da aurtengoa. Eguerdian elkartuko dira trikitilariak eta kalejiran ibili ondoren, frontoian egingo dute bazkaria. Eleiz plazan egingo den erromeriarekin emango zaio bukaera jaiari. Informazio gehiagorako, deitu **665 716 390** telefono zenbakira.

Bizkaiko menuaren prezioa: 18,00 euro

Bazkaria bena emateko sartu 18,00 euro Bizkaiko Trikitixa Elkarteak kanariaren ben-akibatik adieraziz: 2095 0022 00 9105970729. Bazkaria apuntatzeko atzen eguna **maiatzaren 27a** izango da. Informazio gehiago: bakaria@trikitixa.net, www.bizkaiko@trikitixa.com eta 665 716 390.

GIRO BIKAINA DEBAGOIENAKO X. TRIKITIXA EGUNEAN



Maiatzaren 24ean ospatu zen Arrasaten Debagoienako X. Trikitixa Eguna. Arrasatearrekin batera, Bergara, Antzuola, Aretxabaleta, Eskoriatza, Elgeta, Aramaio eta Sorluzeko taldeek hartu zuten parte. Debagoiena eskualdekoak izan ez arren, bertan ibili ziren Gipuzkoako zenbait herritako trikitilariak eta baita Uztaritze, Ezpeleta, Donapaleu, Garazi, Baigorri eta Bidartetik etorritako 20 bat lagun ere. Guztira 250 bat lagun ibili ziren Arrasateko kaleetan barrena larunbat goizari musika jartzen. Kalejiraren ostean, lepo bete zen Plaza trikitixa eskolek larunbaterako propio prestatu zituzten piezak entzuteko. 350 lagun inguru elkartu ziren Uarkape frontoian bazkaltzen eta jarraian erromeria egin zuten Herriko Plazan.

TXIMELETA: MUGITU

Kalean da Tximeleta Plaza Taldearen lehenengo diskoa. Taldearen filosofia beti izan da jendea mugiaraztea, bai dantzara baita aldarrikapenak egitera ere eta horrexek eman dio izena disko berriari: Mugitu.

Gorka Otamendi (bateria), Fabian Tapia (baxua, kontrabaxua, txirula eta gaita), Rafa Moya (gitarra akustiko eta elektrikoak), Jose Olaiola, *Animal* (teklatuak), Mikel Mundiñano, *Zato* (trikitixa eta ahotsa) eta Maider Ansa (ahotsa eta panderoa) dira taldekideak. 10 kantuz osatutako lana da eta bertsolari zerrenda luzea izan dute letragile: Arkaitz Estiballes, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Xabier Silveira, Julio Soto, Manu Gomez, Joseba Beltza eta Eneko Lazkoz.



2014ko otsaila eta martxoan DrumGrooveStudioan, Josu Erbitiren produkzio eta gidaritzapean grabatu eta nahastutako lana da eta Victor Sanchezek masterizatu du Elkar Estudioan. Zuzenekoetan salduko dituzte diskoak. Hala ere, hainbat tokitan eskuratu daitezke: Irurtzu-
nen, Pikuxarren; Etxarri Aranatzen, Xapatero eta Leku Onan; Iruñeko hainbat tokitan eta Elkar dendetan.

IÑAKI PLAZA: EKHI

Duela hiru urte hildako semeari eskainitako diskoa da Ekhi, gertaera horrek bizi-
arazitakotik sorturiko lan pertsonala. Trikitixa eta txalaparta dira diskoaren ardatz baina Iñakik prentsaurrekoan adierazi zuenez, “ez da folk hutsa. Estilo eta sonoritate desberdinak gehitu ditugu, funka eta jazz-a adibidez. Ez da trikitixa disko bat.”

Ofizio horretan sekula aritu gabea baldin bazen ere, Iñaki bera aritu da letragile lanetan. Hasieran galduta ibili zela onartu bazuen ere, emaitzarekin gustura geratu da: “barruan neukana esan egin behar nuen”.

Iñaki Plaza & Band, Carla Sevillak (ahotsa, pianoa, perkusioa), Alex Lopezek (baxua, perkusioa), Kepa Calvo (bateria, txalaparta) eta Iñaki Plaza berak osatzen dute. Dena dela, kolaboratzaile ugari parte hartu du disko berrian; tartean, Oskorriko Anton Latxak eta Xabier Zeberio, Faltriqueira taldekoek, Koldo Uriartek eta lalma taldekoek. Warner Music etxeak banatuko du diskoa.



KHERAU: AUKHERA

14 kantu bildu ditu Kherau taldeak “erditze kolektiboa” bezala definitu duten bere bigarren diskoan. Sustraiak euskal folkean baldin badituzte ere, metala, countrya, folk amerikarra, musika klasikoa edo rock progresiboarekin esperimentatzen ausartu dira euren lan berrian. Aurreiritziei kontra egin eta “betikoa ez egiten” saiatzen dira taldea osatzen duten bost kideak.

Gaizka Andollo (kajoia, djembea eta perkusioak), Aitor Esteban Etxebarria (baxu elektrikoak eta bertsoak), Iker Lope de Bergara (ahotsa, txirulak eta albokak), Ibon Ordoñez (ahotsa, gitarra, bouzouki eta mandolina) eta Alex Garcia (ahotsa eta trikitia) taldekideez gain, Lander Zabala, AK-37, Herri Ohia eta Nelida Ranero izan dituzte besteak beste kolaboratzaile.

Joseba Tapia "Kantuek eraman naute gitarrara. *Agur Intxorta maite*-n trikitiarekin lortu nuen gerrako giro hura ekartzea. Kasu honetan ere gerra garaia da, baina kartzelaldian kokatua dago. Ilunpea, hotza, umedadea, bakar-dadea, beldurra... Sentsazio horietarako trikitia ozenegia egiten zitzaidan. Eta pentsatu nuen gitarrak lagunduko zidala "...". Gitarrarengatik baino kantatzen ditudan kantuegatik gauzatzen dut kantagintza. Kantaria naiz aspaldidanik, trikitiarekin ari naizenean ere bai. Batzuek bateraezintzat joko dute trikitia eta kantagintza. Nire bakarkako disko horiek klarki baieztatzen dute posible dela. Balio leza-keela trikitiak horretarako" ... "kasu honetan hitzek eraman naute gitarrara, baina... soinu txikiarekin aspertuta ere bango. Batez ere, folklorizazioagatik. Karamelu goxo bat bihurtzen ari da, bizar zuriko eta emazte zintzoko Olentzero bezala. Kondenatua zena politikoki hiperzuzena bihurtu dugu *inpernuko hauspoa*."

(Berria, 2014-01-05)

Iñaki Plaza "Gaur egun, hemen, Euskal Herrian, folk musika era ezberdin batzuetan ulertzen da: Alde batetik, tresna bezala ulertzen da askotan eta ez musika edo genero bat bezala. Badago jendea trikitixa entzun nahi duena baina ez duena beste musika tradizionalik entzun nahi edo ez du bilatzen. Kanpora ateratzen bazara, beste leku batzuetan badago ohitura hori musika tradizionala entzuteko edo gozatzeko. Jaialdi handi bat jendez bete daiteke, hemen zailagoa da."

(Euskadi Irratia, Arratsean 2014/04/29)

Xabier Arakama "Trikitixa eskolak ematen eta herrietan jotzen eta jarraituko dut; Ez da ahaztu behar nondik gatozen. Trikitixaren enbaxadore sentitzen naiz, inoiz egon ez den lekuetara eramaten, eta baita Zegama eta Goierri ere. Asko betetzen nau horrek."

(Goierriko Hitza, 2014-05-08)

ERRIA TXIKOTA! KILOMETROAK 2014

Aurten, urriaren 5ean ospatuko da Orion Gipuzkoako Ikastolen jaia. Orioko Herri Ikastolako ikasle ohia den Julen Alonso trikitilariak sortu du Kilometroak 2014ko kantuaren doinua. Olatz Zugasti izan da abestiaren ekoizle eragilea eta Iñaki Gurrutxagarenak dira hitzak.

GI-631 URRETXU-ZUMARRAGAKO HERRI OPERA

500 lagun baino gehiago ari dira ekainaren 21ean Urretxun estreinatuko den herri opera prestatzen. Dagoeneko aurkeztu dute giroa berotzen lagunduko duen abestia. Edurne Iturbe trikitilariak sortu du doinua eta Jon Maiak idatzi ditu hitzak. Trikitilari gehiagok ere parte hartu dute kantuaren grabaketan, Zumarragako trikitixa, Gari eta Iñaki, Andoni Elorza...